



BARREN
TOKIKOM

Ikusgarriago egiten



Outlet Special Days

Martxoaren 13tik 27ra

Ibilgailu berriak, bigarren eskukoak, km0...



Apunta zaitetz 943707033



WhatsApp

Apalategi kalea EIBAR





Elena Larreategi (Elgoibar, 23 urte) Ingeniaritza Informatikoaren 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Arrasaten.

“Aipatuko nuke irakasleen konpromiso maila. Beti daude laguntzeko prest”

□ Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu zaletasunik?

Pilar Ikastetxean hasi nituen ikasketak, ondoren Ikastolara pasatu nintzen eta Batxilergoa IES Elgoibar BHI institutuan egin nuen. Batxilergoa hasi bezain pronto banekien modalitate zientifiko-teknologikoa egingo nuela, teknologiaren mundua asko gustatzen zitzaidalako. Nire zaletasun gustukoena bidaiatzea da. Musean jolastea eta hondartzara joatea ere asko gustatzen zait.

□ Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Informatikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Beti gustatu izan zait informatika. Unibertsitatea aukeratzeko orduan, niretzat oinarritzkoa zen alderdi praktikoa izatea. Mondragon Unibertsitatean metodologia oso praktikoa da, eta beste aukera batzuk ere eskaintzen ditu: gradu amaierako proiektua enpresa batean egiteko aukera ez ezik, bigarren urtetik aurrera lanean hasteko aukera ere bai. Unibertsitatearen inguruan jaso nituen iritziak ere adierazgarriak izan ziren.

□ Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Bizitzen ari naizen esperientzia oso positiboa dela esango nuke, bai arlo pertsonalean, baita akademikoan ere. Nire ikaskideekin batera hainbat aisialdi ekintza eta unibertsitateko proiektu ezberdinetan parte hartzeko aukera izan dugu eta horrek elkarren artean geneukan harremana hobetzerantz eramanez gaitu.

□ Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Goi Eskola Politeknikoan erabiltzen den metodologia lehiakorra da. Klase teorikoak egiten dituzun bitartean azterketak egiten dira eta ondoren proiektu bat egin behar da. Bertan lauhileko bakoitzean ikasitakoa

praktikan jarri behar da eta hainbat trebetasun hobetzeko aukera ematen du: talde lana, antolakuntza, gatazkak modu eraginkorrean kudeatu eta erantzukizunak partekatu, besteak beste.

□ Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana ikasteko metodologia da. Beste alde batetik, aipagarria iruditzen zait irakasleek daukaten konpromiso maila, edozer gauzarekin laguntzeko prest daude beti. Azkenik, eraikuntza oso modernoa da eta guztiz berriturik dago. Adibidez, unibertsitate sartzeko txartel bat erabiltzen dugu eta astebukaeretan joan nahi izanez gero baimena eskatzearekin nahikoa da.

□ Lanean ari zara ikasten ari zaren bitartean, DUAL eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Sijalon enpresan egiten dut lan. Orain arte egindako lan esanguratsuen enpresaren ERPan izan da. ERPa eta datu-basea birmoldatzen ari naiz hainbat hobekuntza egiten. Horrez gain, enpresaren eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzeko asmoz, aplikazio bat garatzen ari naiz.

□ Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu DUALak?

DUAL ereduaren abantailarik handiena unibertsitatean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen duela da, benetako enpresa baten beharrak eta arazoak ezagututa. Antolatze gaitasuna ere lantzen da eta guztia egunean eramateko esfortzua egin behar da. Beste alde batetik, lan erreminta berriak ezagutzeko aukera ematen du eta esperientzia profesionala lortzen da.

□ Zein asmo dituzu etorkizunera begira?

Gradua amaitzerakoan atzerrira joatea gustatuko litzaidake, lan bila edo ikasten jarraitzera. Ingelesa hobetzea ere gustatuko litzaidake eta agian beste hizkuntza berri bat ere ikasiko nuke.

IÑAKI ODRIOZOLA, Elgoibarko BH Institutua

IXAKA EGURBIDE, IMH ikastetxea

“Euskaraldiarekin euskara gehiago erabili eta entzungo den itxaropena daukagu”

“Hainbat barne zein kanpo arigune sortuko dira IMHn”

◆ Erabaki al duzue Euskaraldian parte hartuko duzuen?

Bai, Euskaraldian parte hartuko dugu, euskararen alde egiten diren gizarte ekintza guztiak direlako interesgarriak, eta etorkizunari begira, behar-beharrezkoak.

◆ Ikusten duzu zuenean ariguneak sortzeko aukerarik? Zenbat?

Gurean ikastetxe osoa da, berez, arigunea. Elgoibar BHIko Hezkuntza Proiektuaren arabera gune guztiak dira euskaraz aritze-koak, eta hori horrela, ez daukagu gune berezirik horretarako. Harere, egitasmo honen inguruan jendartean sortzen den olatua jarraituz, hutsuneak identifikatu eta hainbat gune indartzen saiatuko gara. Herri osoaren pareko, zuloa erabileran daukagu, eta hori betetzea tokatzen zaigu Euskaraldia bezalako ekimenekin.

◆ Zuen jendea animatuko dela aurreikusten duzue?

Institutuan DBH eta Batxilergoa ditugu eta ariketa hau 16 urtetik gorakoentzat denez, Batxilergora zuzenduta egongo da, bereziki. Zuzendaritzaren babesarekin, Euskararen Normalizaziorako Ikasle batzordeak, irakasleekin batera, eramango du aurrera egitasmo hau, eta gehiengo handi batek parte hartuko duela uste dugu.

◆ Zer garrantzi ematen diozue zuenean euskarari?

Garrantzi handia ematen diogu gure hizkuntzari, ezinbestean. Euskara da ikastetxearen komunikaziorako oinarria eta tresna nagusia, barneko nahiz kanpoko harremanetan, eta gaur egun, bai idazkari, bai ikasle eta irakasle guztiok dakigu euskaraz. Gainera, aspalditik, euskararen normalizazioa Institutuaren helburuetako bat da, eta horretarako ikasle eta irakasle batzordeak ditugu, urtean zehar hainbat ekintza bideratzen dituztenak euskararen erabilera bultzatu eta sustatzeko. Ezagutza orokorra den arren, denok dakigu erabileran dagoela, gaur egun, eragin beharra.

◆ Zer emango dio Euskaraldiak institutuari?

Euskararen erabilerarako sentsibilizazioa eta kontzientziak asitzeko pauso bat gehiago izango dela uste dugu. Euskararen aldeko egitasmo guztiak ditugu beharrezkoak, eta orain bi urte gertatu zen bezala, Euskaraldiarekin euskara gehiago erabili eta entzungo den itxaropena daukagu. Gure nahia litzateke, aurrera begira, horrelako ekimenak behar ez izatea, baina oraingoz, Euskaraldia eta Euskaraldia bezalako asko beharko ditugu euskararen onerako.

◆ Erabaki al duzue Euskaraldian parte hartuko duzuen?

Bai, horretan IMHn ez dugu inolako zalantzarik izan eta aurreko Euskaraldian bezela oraingoan ere lehenengo momentutik argi izan dugu parte hartuko genuela. Gainera, Ahobizi, Belarriprest edo ariguneak antolatzeaz gain, eragile bezala ere parte hartu

nahi dugu Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean, gure herriko enpre-tetara ere zabalduz 2020ko Euskaraldia.

◆ Ikusten duzu zuenean ariguneak sortzeko aukerarik? Zenbat?

Ariguneak sortzeko batez ere bi baldintza behar dira: gune-ko kide guztiak euskaraz ulertzea eta gune bakoitzeko kideen gehien- goa arigunea sortzearen aldekoa izatea. IMHn baldintza bi horiek esparru gehienetan betetzen dira, eta nahiz eta oraindik kopuru zehatzik ez izan, martxan dugu ariguneak identifikatzeko tresna. Beraz esan dezakegu hainbat barne zein kanpo arigune sortuko direla.

◆ Zuen jendea animatuko dela aurreikusten duzue?

Ziur gaude horrela izango dela. Gure zentrua eskualdearen is- lada da eta irakasle, langile eta ikasleen artean euskal kontzientzia zeharo errotua dago, nahiz eta erabileraren aldetik oraindik lan asko egin daitekeen. Euskal kontzientzia horrek Euskaraldia beza- lako ekintzetan parte-hartze zabala izatea bermatuko du


◆ Zer garrantzi ematen diozue zuenean euskarari?

Euskara IMHko kalitate politika bateratuan txertatuta dago. Honen arabera, elebitasuna erabiliko bada ere, euskarari lehenta- suna emango zaio eta hizkuntza politika honek IMH osoari eragiten dio (Lanbide Heziketa, Unibertsitatea, Prestakuntza Iraunkorra...). Asmo hori gauzatzeko, HKS (Hizkuntza Kudeatzeko Sistema), Eus- kara Plana (2003. urtetik), Euskara Batzordea eta HINAT (Hizkuntza Normalkuntza Arduraduna) ditugu. Beraz, horrek argi uzten du eus- kara zein garrantzitsua den gurean.

◆ Zer emango dio Euskaraldiak IMHri?

2018ko emaitzek argi utzi zuten euskararen erabileran eragin- dako aurrerakada. Hori kontuan izanik, ziur gaude aurtengo Eus- karaldiak gure zentrua osatzen duten kideen hizkuntza ohiturengan eragin eta euskararen erabilera handitzen lagunduko duela. Ariketa kolektiboa den heinean, euskaldun aktiboa izatearen kontzientzia areagotu eta hainbat inertzia edo joera apurtzeko balioko digu.





ALEX SEGADO

Ikaslea

Cannabisa eztabaidan

izatea ikuspuntu guztiak errespetatuz.

Espainiako Gobernu berriarekin cannabisa legalizatzeko aukera gehiago daude. Badirudenez, hainbat erakunde lege proposamen bat prestatzen ari dira Gobernuari aurkezteko noizbait cannabisa erabilera sendagarriak onartzeko. Gobernu Zentralak lehenago edo beranduago aurre hartu beharko dio kontu honi eta bi alderdiek, PSOEek eta Unidas Podemos, ez dute ikus-

puntu bera legalizazioaren inguruan.

Podemosek bere hauteskunde programan cannabisa despenalizatzea proposatzen du. PSOEek, aldiz, cannabisa erabilera inguruan ikerketa bat egitea osasunean dituen eraginak aztertzeko. Hortaz, momentua iritsita interesgarria izango da ikustea nola egingo dioten aurre eztabaidari.

Cannabisa erabilera sendagarriak legeztatzea aurrepausoa izan daiteke ondoren aisialdirako onartzeko. Baina ezin gara gertaerei aurreratu, lasaitasunez hartu behar dugu gai hau asko luzatuko baita. Momentuz, herritarren babesba dago. Gaiaren inguruan azkeneko aldiz galdetu zenean CISEko inkesta batean 2018an, pertsonen %84a erabilera sendagarriaren alde agertu ziren. Ziur nago berriro galdetzen bada ehuneko hori zerbitu handiagoa izango dela. Gure aldetik behintzat estatuak badu babesba cannabisa legalizatzeko, beste gauza da nahi izatea, eta hori ez dago gure esku.

“Espainiako Gobernu berriarekin cannabisa legalizatzeko aukera gehiago daude”

Unibertsitatean cannabisa erabilera legalizazioari buruzko debata izango dugu egun batzuk barru. Han eztabaida bizia izango dugula jakinda, gaia hona ekartzea ere aproposa dela uste dut. Badakit oso eztabaidagarria eta polemikoa dela, eta iritzi oso ezberdinak daudela cannabisa erabilera inguruan. Hala ere, bada garaia legalizazioaren inguruan ditugun iritziak beldur barik azaltzeko, aldekoa edo kontrakoa direnik alde batera utzita, eta eztabaida formala



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaiola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AUZOAREN
BATZARRA

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARRO
URDIA

Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► “ONDO BIZI GARA” MUGIMENDUA

Ez omen da berria mugimendu hau, hortxe egon da beti, baina azken bolada honetan itsasoaren beste aldetik olatuek ekarritako irudi gogorren zipriztinek ez bustitzeko-edo, gero eta oihartzun handiagoa dute *Oso ondo bizi gara* mugimenduaren aldarrikapenek. Halarik ere, ez dago jakiterik nortzuk dauden atzean (oso plurala ei da), ezta koalizio bezala inoiz aurkezten badira, zer nolako programa aurkeztuko duten ere. Izan ere, egunero-koetan politika ez dute bizi izaten, beste-lako lehenetasunak dituzte horretan denbora erabiltzeko. Gainera, lurraldetasunak, presoak, pentsionistak, errefuxiatuak, egun bateko grebek... ez dute eragin handirik izaten egindako dietan. Lasai asko bizi daitezke aukerako beste menu bat janda. Hori bai, politikaz ari dirrelarik, ez dira mutu gelditzen. Badakite zer esan behar duten beste aldekoa isilarazteko: *“Politiko guztiak antzekoak dira. Zer pentsatzen duzu, bada?”*. Horrelakoak dira estatusari eusteko, eta inolako gora-beherarik ez izateko, edozein gauza egiten dutelarik ere, botoa beti, betikoei ematen dietenak. *Zertarako aldatu, ondo bizi bagara batzuok!*

Juan Luis Mugertza

► ZURIKETA MOREA

San Lazaro egoitzako langileen ize-
nean eskerrak eman nahi dizkiegu Elgoi-
barren Martxoak 8 antolatzen hainbeste
lan egin duten talde eta emakume femi-
nista guztiei. Bereziki eskertu, aurtan, San

Lazarotik manifestazioa hasteko keinua.

Guk iada, berri gutxi daukagu esa-
teko. Azkena, Aldundiak, M8 egunaren
hariara ateratako manifestuak asko hase-
rretu gaituela: bertan, berdintasun hitzare-
kin betetzen zaie ahoa, soldata arrakala
desagertzearekin, zaintzez aritzera ere
ausartzen dira, baina hau dena zuriketa
morea besterik ez da! Gaur 242. eguna
(ostirala, hilak 13) da guretzat M8 eska-
tzen, greban gaudela, gutxieneko zerbitzu
abusiboak jasanez, zerbitzu super maxi-
moetan daukagun plantilla eskasia age-
rian utziz...

Berdintasunaren alde gu gaude, sol-
data arrakala jasaten dugunak gu gara,
zaintzak profesionalizatu nahi ditugunak
gu gara... eta abar luze bat, baina be-
raien ustez sistema hau, horrela, ez da
sustengarria.

Zuriketa morea beraiena! Borroka fe-
minista gurea! M8 egunero da! #erresi-
dentiakborrokan

P.D: Noski, bat egiten dugu gure egoi-
tzak duen kale-izen frankista kendu eta
Martxoak 8 izena jartzearen ekimenare-
kin! Martxoak 8, 1, San lazaro Egoitza.
20870 Elgoibar.

San Lazaroko langileen ordezkariak

► MARTXOAK 8

Ez daukat sentsazio onik. Tristura eta
lotsa pixka bat ere bai, zergatik ez esan.
Emakumea naizelako herri txiki batean, El-
goibarren, eta emakumeok ez garelako
gai izan Martxoaren 8ko ekintzetan ba-
tera joateko. Dena politizatu behar al da?
Gauza asko dago egiteko eta lortzeko,

eta domekan gertatu zena ez da bidea.
Non dago gure elkartasuna? Non dago
gure sororitatea? Zer lortu nahi dugu?
Emakumeak beti aurrera, baina batera.
Nik uste dut batera indar handiagoga egi-
ten dela.

Encarni Migales

► OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen aleko erretratu zaharrear
agertzen zen emakume baten izena
gaizki eman ziguten: Maria Luisa Urain
zen izen zuzena.

BARREN

► OHARRA

San Jose Eguneke jai-zubia dela-eta,
datorren astean ez dugu BARRENik
kaleratuko. Hurrengo alea martxoaren
27an jasoko duzue.

BARREN

OHARRA

Edizioa ixteko orduan, Elgoibarren astebururako iragarritako ekintzak bere horretan jarraitzen zutela jakinarazi ziguten antolatzaileek, baina Koronabirusa dela-eta, neurriak zorrozten ari dira eta gerta daiteke Jaurlaritzak emandako jarraibideei segika, bestelako erabakiren batzuk hartu behar izatea ondorengo orduetan. Informazio eguneratua barren.eus webgunean izango duzue.

Ikastetxe guztiak eta hainbat zerbitzu publiko itxi dituzte gurean ere, koronabirusa gehiago zabal ez dadin

Covid-19ari aurre egiteko neurriak egunetik egunera ari da zorrozten Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Lerro hauek idazteko orduan Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen gaurtik, eta hamabost egunez, itxita egongo direla Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastetxe guztiak [Arabian itxita daude eguaztenaz geroztik], hasi haurreskoetatik eta unibertsitate artekoak. Birusa gehiago ez zabaltzea eragotzi nahi dute erabaki honekin. Izan ere, eta atzoko datuen arabera, birusa etengabe ari da zabaltzen. Atzo, 346 lagun zeuden positiboak emanda Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, eta horietatik 147 ingesatuta zeuden. Hildakoen kopuruak ere gora egin zuen 24 orduan, 8tik 11ra. Kristina Uriarte Hezkuntza sailburua nabarmendu zuen eskolak itxteak ez zela irakasleei eragiten, ikastetxeetako langileek euren ohiko ordutegia bete beharko dutelako. Tarte horretan material didaktikoa prestatzeko eta ikasleen eskura jartzeko betebeharra izango dute irakasleek, ikasleek modu ez-presentzian lan egiten jarraitu ahal dezaten. Era berean, ikasleentzako eta gurasoentzako mezua ere zabaldu zuen. "Ahalegina egin beharko dugu ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten. Horrez gain, orain arteko gomendioak ere errepikatu zituzten. Ikastetxeak itxteko eta eskolaz kanpoko jarduerak eteteko erabakiak soka luzea ekarri zuen atzetik. Mendaron, esaterako, atzo arratsaldeaz geroztik itxita daude ludoteka, gaztelekuak, Musika Eskola eta liburutegia. Era berean, gaurko iragarrita zegoen bertso saioa eta bihar Motxilla Egunaren barruan egitekoak ziren ekintza guztiak ere bertan behera utzi dituzte momentuz, bai eta eskola kiroleko ekintzak ere, Arno Guraso Elkartetik jakinarazi dutenez. Eskolak itxteko erabakia etorri aurreragorako bertan behera utzia zuten Elgoibarren Emakumeen Master Cup txapelketa ere, eta Elgoibarko eta Mendaroko jubilatuen biltokietan atekak itxteko erabakia hartu zuten.

Era berean, eta Osasun Sailetik egindako gomendioei jarraiki, birusaren kontrako protokoloa aplikatzen hasiak ziren Elgoibarren eta Mendaron beste leku askotan. Esate baterako, ospitalean, ambulatioetan eta adinekoentzako zentroetan. Joan zen astean Gipuzkoako Foru Aldundiak nagusien 135 egoitza eta zentrori helarazi zien Osakidetza diseinatutako protokoloa, tartean San Lazaro egoitzari, eta protokoloa martxan dute dagoeneko. Zahar etxeetako adinekoek egunean pertsona baten bisita jaso ahal izango dute, eta gehienez ordubetekoak. Mendaroko ospitalean ere aktibatuta dute protokoloa, eta besteak beste, gaixoak ezin dira euren logeletatik irten eta bisita kopurua mugatuta dute. Enpresetan ere hasi dira koronabirusari buruzko informazioa ematen langileei, eta hartu beharreko gutxieneko neurriak azaldu dizkiete. San Bartolome parrokiaren ere neurri bereziak hartu dituzte, Goetzain-batzarretik emandako jarraibideei kasu eginda. Batetik, ur bedeinkatua kendu dute elizan, eta elkarri bakea eman ordez



otoitz egingo dute isilean. Horrez gain, San Lazaro egoitzan ere ez dute mezari ospatu, zapatuaz geroztik. Koronabirusa gehiago zabal ez dadin hartutako neurriek, alarma halako bat ere sortu dute bazterretan, eta egunotan hutsik edo erdi hutsik ikusi ditugu supermerkatuetako apal asko Elgoibarren ere. Era berean, botiketan ere igarri dute herritarren artean zabaldu den egonezina. Maskarak, esate baterako, agortu dira, eta gel desinfektatzaileak ere ekarri ahala ari dira saltzen.

Sintomak izanez gero, etxean gelditu

Elgoibarko Udalak eta Mendaroko Udalak zabaldu dituzte koronabirusa sahiesteko Osakidetza emandako gomendioak, eta eraikin publikoetako sarreretan zintzilikatu dituzte ohar orriak. Hauek dira zabaldu dituzten gomendioak: eskuak sarritan garbitzeko, eztl edo doministiku egiterakoan ahoa ukondoarekin edo zapiarekin estaltzeko, eta segidan zapi hori zakarrontzira bota eta eskuak ondo garbitzeko; eztl eta doministiku egiten duten edo sukarra duten pertsonengandik gutxienez metro bateko distantzia gordetzeko; sudurra eta begiak eskuekin ez ukitzeko eta etxean edo leku publikoetan eskuekin ukitzen diren gainazalak sarriago garbitzeko. Horrez gain, gaixotasuna transmititzeko gune batera joan eta eztl, sukarra, eztarriko mina edo arnasa hartzeko zailtasunak nabaritzen dituen pertsonak, etxean geratu beharko du, eta Osasun Kontseilura deitu (900 20 30 50).

Osakidetza jakinarazi du protokoloa etengabe berrikusten ari direla, koronabirus berriak (SARS-CoV-2) eragindako infekzioari buruzko informazio eguneratuaren eta eboluzioaren arabera. eta erantzukizunez jokatzeko eskatu diete herritarrei. Era berean, adinekoak eta gaixotasun kronikoak dituztenak, hau da, arrisku handiena duten kolektiboak gogoan izateko eskatu dute. Osasun Sailean eta Osakidetza konfiantza izateko ere adierazi dute, neurriak hartzen dabiltzalako.

46.000 euro erabiliko ditu Udalak Merkatu Plazako fatxada berritzeko

Elgoibarko Udalak Merkatu Plazako fatxada berritzeko lanak hasi ditu, eraikina "ahalik eta baldintza onenetan mantendu eta herritarren segurtasuna bermatzeko". Kaltetutako hormigoizko azalerak pikatu eta konpontzen ari dira, ondoren garbitzeko. Geroago, birgaitu beharreko hiru fatxadetako hormigoizko elementuak osorik margotuko dituzte: fatxada nagusia, albokoa eta fatxada nagusiarekiko paraleloa. Goki Erreformak S.L. enpresak egingo ditu lanak 46.754 euroren (BEZa barne) truke. Ondo bidean, obrek hilabete iraungo dute.



600 euro banatu ditu Txankakuak stock ferian



Stock feria antolatu zuen Txankakuak zapaturako, eta herriko merkataria-riak kalera irten ziren. Hamabost establezimenduk hartu zuten parte, eta beraien produktuak prezio merkeagoan eskaini zituzten. Maalako parkean jarri zituzten postuak. Eguraldia hotz eta euritsu esnatu zen zapatuan, eta dendariak esan zuten jende gutxi ibili zela, baina hala ere, salmentak "nahiko onak" izan zirela adierazi zuten Txankakuako arduradunek. Bukar-eran ehun euroko sei erosketa bono zozkatu zituzten.

Gazteen artean Lanbide Heziketa eta industria sustatzeko tailerrak antolatu dituzte

Elgoibarko gazteek Lanbide Heziketa, unibertsitatea eta industria aurrez-aurre ezagutzeko Ekiten tailerrak antolatu ditu Udalak, IMH, Meka, Arreiturre Institutua eta Elgoibar Ikastolarekin elkarlanean. Institutuko DBH3ko eta Ikastolako ikasleek IMH eta MEKA bisitatu dituzte aste honetan, bertako ikasleek zer eta nola ikasten duten ezagutu ahal izateko. Martxoaren 24an, 25ean eta 26an, DBH4koek Cometel enpresa bisitatuko dute, prozesu guztietako lankideen lana ezagutzeko, eta Manahmana enpresaren laguntzarekin dinamika-hausnarketa egingo dute.



EH Bilduk Apraitzeko araztegi-ko uraren eta inguruko airearen kalitateari buruz galdetu die administrazioei

Elgoibarko EH Bildu "oso kezkatuta" dago jendaurrean agertzen ari diren hainbat informazioerengatik eta Apraitzeko hondakin-uren araztegi inguruan bizi diren bizilagunengandik iristen zaizkien kezkerengatik. "Araztegiaren inguruetan bizi diren bizilagunek adierazi digute badirela egunak urak tratatzeko azpiegituratik gasak ateratzen direla, badirela egunak arnasa hartzeko zailtasunak dituztela, ahotsa urratzen zaiela, beren eztrariak sufritzen dutelako... Eta ikusi dutela urak isurtzen direla ibai mugakideetara". Horren harira, Apraitzeko araztegi-ko uraren eta inguruko airearen kalitatearen inguruko informazioa eskatu diete Elgoibarko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari eta Ura Agentziari. Era berean, EHBilduk galdetu du ea araztegi-ko arriskutsuak izan daitezkeen substantziekin lan egiteko egokিতuta dagoen, ea araztegi-ko sartzeko eta irteteko kontrolak dauden, ea aldian-aldian airearen eta uraren kalitatearen kontrolak egiten diren, ea araztegiak zerbitzurik ematen ez dien beste udal-erri batzuetako urak har ditzakeen... "Joan den otsailaren 16an Zaldibarko zaborte- gian lanean ari zen kamioilari baten testigantza irakurri genuen *Berria* egunkarian, eta haren arabera, Arriagako araztegi-ko eramatzen zituzten zaborte- gietatik zetozen lixibiatuak. Harritu egin gintuen, zaborte- gi horrek ez baitio zerbitzurik ematen Zaldibarko udal-erriari", adierazi dute.



Edurne Azkarate, Miren Alcalá, Oier Zuñiga, Olatz Beobide eta Ander Lipus aktoreak, antzezlaneko une batean.

“Uste dut bazela behar bat drogei buruz hitz egiteko, gure historia geuk kontatzeko”



► XIMUN FUCHS ‘ZALDI URDINA’ ANTZERKIAREN ZUZENDARIA

Axut, Artedrama eta Dejabu konpainiek elkarrekin sortu duten azken lana [elkarrekin egindako laugarrena] ikusteko aukera izango dugu gaur Elgoibarko Herriko Antzokian (20:30ean): ‘Zaldi urdina’. Ximun Fuchsek zuzendu du (Larzabale, Baxenabarre, 1974) eta Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzi dute gidoia. Antzezlanaren oinarrietako bat Justo Arriolaren ‘A los pies del caballo’ liburua zan da, hortik hasi dutelako dokumentazio lana, baina Uxue Alberdiren ‘Jenisjoplin’ liburuan ere bilatu dute inspirazioa.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Jar gaitzazu testuinguruan, spoilerrik egin gabe.

Justo Arriolak ‘A los pies del caballo’ liburua argitaratu zuenean sortu zen *Zaldi urdina* egiteko ideia. Hor piztu zen gogo bizi bat ateratzeko gai bat: droga Euskal Herrian. Drogak gure familietan izan duen eragina aztertu nahi izan dugu. Droga mota asko dago, baina Euskal Herriak badu istorio berezi bat drogarekin, drogak eragindakoa izan delako seguruenik Euskal Herrian izan den azken sarraskia. Milaka eta milaka pertsona hil dira, jende asko eraman du hiesak, estigma eta lotsa handia bizi izan du jendeak eta oraindik gelditzen da min eta zama hori familietan. Guk uste dugu hori behar dela publiko egin, behar dela gizarte mailan kudeatu. Droga asko sartu zen hemen nahitara, belaunaldi oso

bat itozteko eta hiltzeko, eta indioak alkoholetan sartu ziren modu berean sartu zen gure herria drogan. Hori da testuingurua. Kontatu nahi izan dugun istorioa, hala ere, gaur egun kokatzen da. Izan ere, droga aipatzen dugunean iruditzen zaigu 80ko hamarkadaz ari garela beti, baina Euskal Herrian gaur edozein droga aurkitzen ahal da oso erraz eta sarraski handi haren ondorioak gaur egun ere ikusten ahal dira: familietan hainbeste hutsune, eta hainbeste sekretu eta isiltasun. Hortik abiatuta sortu genuen istorio bat gaur egungo gazte batzuek bizi ahal zutena. Droga hartu duen gazte bat koman sartzen da diskotekan eta substantzia hori, zaldi urdina, saldu dion 17 urteko lagunak ihes egiten du. Mutil hori familiako gaztetxoena da, maitatuena, eta senideak haren bila

abiatuko dira eta *euskal road movie* estiloko istorioa biziko dute.

♦ **Justo Arriolak dio zuk aipatzen duzun sarraski hura modu antolatuan gertatu zela. Mezu hori indartzera dator antzezlanara?**

Ez dut uste antzerkiaren funtsa mezuak zabaltzea denik. Antzerkiaren funtsa galderak pausatzea da: Zer gertatu da hemen? Zergatik ez da auzitara eraman ahal izan istorio hori? Jakina da koartelestatik irten zela droga, baina gertaturikoa ez da sekula epaitu. Zergatik uzten da oraindik isilpean? Zergatik uzten da kanpoan drogaren gaia euskal gatazkaren kontakizunetik? Eta zergatik uzten da motxila astun hori familien bizkarrean? Guk pausatzen ditugu guri bururatzen zaizkigun galderak, baina ez dugu erantzunik ematen. 'Zaldi Urdina' obrarekin espero dugu plazeraz gain gizartean debatea sortzea, mugitzea ikuslegoaren barneak, hunkitzea.

♦ **Elgoibarrek ikaragarri sufritu zuen 80ko hamarkadan eta beharbada ez da kasualitatea obra hau ere bi elgoibartarren lanetan oinarritu izana. Ardura berezirik sentitzen al duzue antzezlanara Elgoibarren erakusteko?**

Bai eta ez. Herri guztietan sufritu dugu asko, eta ez da kasualitatea guk ere sentitu badugu hitz egin beharra. Ardura handia izan dugu hasieratik beraz, gure familietan ere ikusi eta sentitu dugulako hemen gertatu dena. Saiatu gara inongo epaiketarik ez egiten. Gure mezua ez da droga gaizki da; gu ez garela inor esateko ongi ala gaizki den, droga izaten ahal delako gauza asko; gauza da nola erabiltzen eta kudeatzen dugun. Hori da arriskutsua. 'Zaldi urdina' obrarekin aukera ematen diegu ikusleei pentsatzeko zergatik badagoen historian zehar drogak erabiltzeko halako behar bat. Gehiegi den edo ez epaitzera ez gara sartzen, baina horren inguruko galderak sortzen ditugu.

♦ **Oholtzara igoko zaretenen artean bazaude eskarmentu eta adin jakin batekoak, baina badaude 80ko hamarkadan jaiotakoak ere. Nola landu duzue gaia? Nolako izan da sortze prozesua?**

Antzerkiak baditu bere gauza intimoak eta delikatuak eta bakoitzak baditu baita ere bere motxilak, eta horiek denak errespetatu egin behar dira beti. Lanean, saiatu gara bereizten pribatua eta intimoa. Pribatua etxean gelditzen da eta intimoa publikoki konpartitzen ahal da. Ñabardura hori egitea ez da beti oso erraza, baina saiatu gara errespetatzen bakoitzak pentsatzen duena eta osotasun horretan eramatea antzerkia herriz herri bere kontradizkio, ñabardura, finezia, min eta pozak barne.

♦ **Zenbatetan entzun ote dugun etxeko trapu zikinak etxean garbitu behar direla. Zuen obrak badu, baina, trapu horiek aieratzeko nahi bat, ala?**

Francoren bilobari gutunak antzezlanean ere hori nahikoa ageria zen. Minak eta traumak kolektiboak direnean eta gertatu direnean kultura edo jatorri batengatik kultura horren tresnak erabili

“Zaldi urdina’ obrarekin espero dugu plazeraz gain gizartean debatea sortzea, ikuslea hunkitzea”

behar dira zauriak zaintzeko. Zeren, bai, psikiatrek eta psikologoek lan bat egin ahal dute, baina ez dute egiten ahal lan kolektibo bat, eta uste dut antzerkiak baduela horretarako gaitasuna: gertatu diren minak, zauriak eta pozak oholtzara eramateko, guk denok elkarrekin emozio bat sentitzeko geure hizkuntzan. Mundu guztiak kontatzen du gure historia, guk salbu. Netflix eta halakoei ikaragarri gustatzen zaie guri buruz aritzea, baina guk

ba al dugu gure amei, gure haurrei, gure bilobei... zerbait kontatzeko? Bada, har dezagun denbora eta konta dezagun. Antzokia, gainera, leku publikoa da, baina etxekoa, euskaraz egiten dugulako eta euskaldunen artean gaudelako. Hots, trapu zaharrak aieratzen ditugu, baina etxean gelditzen dira.

♦ **Ikasleekin ere egin dituzue emanaldi batzuk. Zer harrera egin dizuete?**

Uste dut gazteek guk bezalatsu ikusten dutela drogaren gaia. Bada arazo bat transmisioan, ez delako kontatzen gure historia. Horregatik gazteek batzutan uste izan dute droga gazteen problema dela, eta ez amonena adibidez, eta kosta egiten zaie egitea lotura hori eta ohartzea beraien familietan ere izan direla hainbat eta hainbat istorio. Bestetik, obrak berez badu kutsu bat oso energikoa eta horrek egiten du, hizkuntza mailan, harreman



nahiko zuzen eta zintzo bat sortzea gazte jendearekin. Eta gazteez ari naizelarik ari naiz adin guztietako gazteez, baita 70 urtekoen ere, baduelako hori ere obrak: gaztetasuna kuestionatzeko nahia. Izan gazte edo oso gazte badugu tradizio bat izarrak berraztertzea; behar dugu izan liluragarri eta izan beste zerbaite, eta drogak hutsune hori betetzen du. Beraz, uste dut harrera zintzoa egin digutela gazteek. Batzuek gaizki pasatuko zuten, baina uste dut sortu dela harreman indartsu bat, emozionala eta berehalakoa, eta sentitu direla gure obraren parte.

♦ **Obra gaur egunean kokatu duzue, baina garbi dago atzera begirako bat ere badagoela. Zergatik? Gertatutakoa errepikatzeke arriskua ikusten duzuelako, akaso?**

Bai, bai. Gauzak ez dira beti berdin gertatzen, baina gauzak ez baldin badira kontatzen arriskua izaten da molde berean errepikatzea. Gauza batzuk berriz datozela entzuten da ezkereskuin, eta egia da oso erraza dela droga mota guztietatik hartzea Euskal Herrian. Frantzia ez da hain erraz aurkitzen, adibidez. Entzun dugu heroina berriz datorrela. Entzun dugu, adibidez, heroina hemen dela berriz. Entzun dugu baita ere ez dela molde berean etorri, hots, orain ez direla pintxatzen, baina hemen dela berriz. Eta heroinaz gain, beste droga asko ere badaude: pastilak, sudurretik sartzen direnak eta abar, eta badira beste hainbat adikzio ere, jokoa, adibidez. Adikzio horiek guztiak kontatu behar dira. Saiatu behar gara adikzioen gaia disekzionatzen, zientzialariek egiten duten bezala, eta ongi azaltzen zer diren eta zer kalte egiten duten. Gero bakoitzak egin ahalko ditu bere hautuak, baina gutxienez, jakinaren gainean egin ditzala, hala egiten diren hautuak beti direlako askoz hobekak.

♦ **Gerta daiteke mina sufritu duenak erreparatu halako bat iza-**

tea zuen antzezlan hau ikustera joateko, pentsa dezakeelako mina berrituko diola. Zer esango zenieke horiei?

Hautu bat da hori ere, jakina. Izan dira hainbat eta hainbat min hori sufritu dutenak eta antzezlan ikusi dutenak. Nik aholkatuko nieke lagun batekin edo senideren batekin etortzeko antzokira eta gero hartzeko trago bat kanpoan eta hitz egiteko lasai obrari buruz eta beraiek bizitakoari buruz. Hitz egiteko lehengusuz, amaz eta etxean sufritu dutenez, gertatutakoa kontatu behar baita. Beharbada minak ez dira arinduko gure barruak askatzean, baina hitz eginda, eramangarriagoak egingo dira.

♦ **lazko urriaren 11n Luhuson estreinatu zenutenetik, antzoki asko goraino bete ditu 'Zaldi urdinak' eta oso kritika onak jasotu ditu. Gustura al zaudete izandako harrerarekin? Espero zenu-ten?**

Iruditzen zait antzezlan honek badaramala berarekin zerbaite gurea ez dena, gure lana ez dena. Jende asko-asko hurbildu da antzezlan ikustera, antzoki asko bete dira eta pozik gaude. Fenomeno txikia da antzerkia den heinean, jakina, baina fenomeno izan da. Uste dut bazela behar bat drogari buruz eta gure gaiez mintzatzeko. Gure minetaz besteek kontatuko dute dena, baina guk ere behar dugu kontatu eta konpartitu eta behar dugu hori egin gure hizkuntzan, euskaraz. Gainera, herri gisa gutaz hitz egiteko gai ez bagara, ez gara sekula libre izango.

Bon, aholku bat eman nahi diet 'Zaldi Urdina' ikusi nahi duten elgoibartarrei: aurrez hartzeko sarrera, herri askotan gertatu baita tokiko jendea kanpoan gelditzea kanpoko herrietan ikusi dutenek hartu dituztelako aurrez sarrerak.


♦ **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Umiltasun eta plazer handiz hurbilduko garela zuengana.

UXUE ALBERDI

(Elgoibar, 1984)


"Zarautzen ikusi nuen 'Zaldi urdina', ederra. Hasiara inpaktantea du, izugarria da obraren abiadura, hasieratik amaierara eramaten zaitu lepotik helduta. Bateko trama poliziala eta besteko drama soziala, aktoreen koordinazio bikainak bidaia bat oparitzen digu gure kaleetan, diskoteketan, kalabozoetan barrena. Gazteen zainak eta sistema polizialaren estolderiak oholtza gainean".



JUSTO ARRIOLA

(Elgoibar, 1966)

"Durangon ikusi nuen eta hunkitu egin ninduen. Mugimendu handia dauka, eta iruditzen zait drogaren oso ikuspegi zabala lantzen duela: lagunen eta familien mina, heroinaren politika ezkutua, poliziaren papera... Antzezlan nire obran oinarritu dela esan zidaten eta ohore handia sentitzen dut. Nire hondar aletxoak ere hor dago, eta pozik nago. Merezi du ikusteak eta gai honen inguruan hitz egiteak, barruak askatzeak".





► Morez jantzi ditu kaleak borroka feministarako deiak



Ehunka lagun irten ziren kalera domekan, borroka feministarako deiar erantzunez. Narrutsik taldeak deitutako manifestazioarekin hasi zituzten ekitaldiak Elgoibarren. San Lazaro egoitzatik abiatu zen manifestazioa 'Elkartasuna gure arma' lempaean, Uluka batukadaren doinuez jantzita. Gero, Kalegoen plazan hasita, Martxa Morea egin zuten. Batukada doinuek eta Huntza taldearen 'Zer izan' abesti feministaren koreografiak eman zioten amaiera ekitaldiari. Segidan, Narrutsik taldekoek ekintza sinboliko bat egin zuten: Pedro Mugurutza kaleari Martxoak 8 izena jarri zioten. Mendaron, bestalde, elkarretaratzea egin zuten Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta, eta borroka feminista inoiz baino beharrezkoagoa dela ohartarazi zuten. M8ko argazki gehiago eta bideoak barren.eus atarian.





Ainara Argoitia, Ane Zabaleta, Pilar Arriola, Nerea Sasiain, Amaia Loiola eta Arrate Zubia.

Kirola, emakumeen ahotan

'Aupa neskak!' erakusketaren osagarri, 'Lehia bai ala ez?' izenburuko mahai-ingurua antolatu zuten Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta Haizea Emakume Taldeak joan zen eguaztenerako. Bost kirolari gonbidatu zituzten, bost emakume erreferente: Ane Zabaleta (Elgoibar, 1981), Pilar Arriola (1968) eta Nerea Sasiain (2001) atletak, Amaia Loiola dantzari eta pala jokalaria (1995) eta Arrate Zubia mendizalea eta Txixibilaldi eta Marimendi emakume taldeetako ordezkaria (1957). Emakumea eta kirola binomioaz jardun ziren bostak, luze eta zabal, eta mahai-inguru hark eman zuenaren laburpena duzue hau.

- AINARA ARGOTIA -

♦ **Kirola ona da osasunerako eta autoestimua indartzeko, gizartean integrazteko modu bat ere izan daiteke kirola egitea, denbora-pasa ere bada, negozioa ere bai... Zer da zuentzat?**

Arrate: Guri, eta guri diot Txixibilaldiko emakume taldeko ordezkari gisa natorrelako ni hona, kirolak, mendizaletasunak, konplizitatea eman digu, eman digu adiskidetasuna, eta eman digu elkartasuna. Balore on asko lantzeko bidea eman digu eta baita pertsona gisa hazteko eta pertsona hobek izateko bidea ere.

Ane: Entrenatzea eta osasuna zaintzea da kirola, eta baita lagun berriak egiteko bidea ere. Baina gehiago ere bada: Nik badakit ez dela gauza bera pertsona autonomoa izatea edo pertsona ezindua izatea, baina kirolak balio digu erakusteko mugak geure buruan dauzkagula.

♦ **Kirola modu lehiakorrean ulertzen da nagusiki. Ona ala txarra da hori?**

Pilar A.: Ni neu beti izan naiz oso lehia-

korra. Niretzat ona da hori. Garbi izan behar dugu beti ez dugula irabaziko, ez dugula beti lortuko nahiko gurekin emaitza, baina lehiatzeko gogo horrek laguntzen du hobetzen eta nik horri ez diot txarrik ikusten. Ez dut ulertzen txarra denik umeak lehiatzea. Eskolan ere ondo egiten duenari 10ekoa ematen diote, eta gaitzen ez duenari, 4koa. Bada, kirolean berdina da. Denok ez daukagu kapazitate berdina, eta garbi dago azkena egin duenari sekula ez diogula esan behar gaizki egin duenik. Hori ez. Animatu behar dugu gehiago entrena dadin, gehiago saia dadin. Nik ez diot txarrik ikusten behintzat horri. Orain 40 urte egin dako lagunak badauzkat nik, beti elkarren kontra lehian ibilitakoak, eta gaur, behar bada, eurek dira lagunik onenak.

Arrate: Nik uste dut osagarriak direla hemen gauzak. Lilatoira joaten ginenean ere, zu beti joaten zinen aurrean, eta guk, atzean gindoazen taldekideok, beti ani-

matzen zintugun aurrera egiteko. Lehia ondo dago, baina iruditzen zait badagola kirolaz gozatzeko beste modu bat, lehiatu beharrik gabe, eta hori dela hemen zabaldu behar duguna. Gure lehia, lehia kolektiboa izan da lehia pertsonala baino gehiago: emakumeen presentzia handitu nahi izan dugu. Alpeetan, Burnaby mendian (lehen, Bishorn mendia), izandako eztabaida gogor bat ekarri nahi nuke hona [Elizabeth Hawkins-Whitshed mendizale aitzindariaren balentria omentzeko espedizioa egin zuten Burnaby mendira Marimendi mendizale taldekoek 2014an. Alpeetan 4.000 metroko mendi bat eskalatu zuen lehen andrazkoa izan zen Elizabeth Hawkins. 1984an igo zuen]. 4.134 metro ditu Burnabyk eta gu joan ginenean oso eguraldi txarra egiten zuen. Hara iristean mendiko gidariek esan ziguten taldeko bi-hiru gogorrenak joko zutelako gailurrerantz, eta guk ezetz, denok elka-



rrekin joan nahi genuela. Bagenekien beharbada denok ezingo genuela gailurra egin, baina behintzat ahalegina denok egin nahi genuen, eta haiek ez zuten ulertzen. Baina gure lehia hori zen: elkarrekin hasitako proiektu hura elkarrekin gauzatea. Eta, azkenean, lortu genuen.

Pilar: Dena errespetatzen dut nik. Akordatzen naiz zenbatetan esaten nizuen zuei ere etortzeko lehenengo ilarara irteeran. Kontu bat, hala ere. Nik uste dut Lilatoi batean errazena dela esatea 'Ni disfrutatzera noa!'. Han 6.000 emakumeren artean, 20-30 batek bakarrik izango dute irabazteko lehian sartzeko aukera, eta jende gehienak ezin du besterik esan, baina niri hango hogeita minutuko ahalegin beteak egunetarako poza ematen dit. 'Zuk sufritu egiten duzu!' esaten didate, baina jabetu gabe ondorengo egunetako pozaz. Gauza bera Behobia batean. Ordu térdiko sakrifizioak sekulako poza ematen dit.

Nerea: Nik neuk lehia-puntu pertsonal hori behar dut. Txapelketaren baterako denean motibatuago egoten naiz eta hobeto entrenatzen naiz. Nik ez neukan gorputz atletikorik atletismoan hasi nintzenean. Potolaxoa nintzen eta azkenekoen artean iristen nintzen lasterketa herrikoietan-eta, baina lehiatzeko gogo horrek eraman ninduen gehiago saiatzera eta gaur naizena izatera.

♦ **Emakumeen kirol-eredua eta gizona bereizten duenik ere bada. Hala egin zuten, esaterako, lan baldintza dui-**

nen alde greba egin zuten emakume futbolariak. Beste balore batzuk aitorzen zizkieten andren kirol-ereduari, zuk iradoki duzunaren bidetik, Arrate.

Nerea: Gaitasunak aparte utzita, nik ez dut ikusten emakumeen eta gizonen kirol-eredua bereizteko beharrik. Gaitasunari dagokionez, garbi dago orokorrean, mutilak kirolerako hobekak direla; geneetan datorkie. Emakumeen gorputza umeak izateko prestatuta dago, gantz gehiago daukagu gorputzean, eta beraz, hortik abiatuta eurek beti izango dira hobekak. Baina kirol-eredua ez nuke ezberdinduko.

Arrate: Nik ikusten dut aldea. Gauzak aldatzen ari dira zorionez, baina, lehen, guk ez genuen kirola egiteko aukerarik izaten eskolan. Laboreak egiten genituen guk, eta bestela, gonak jantzita, lau pauso eginarazten zizkiguten eta listo; kirola ez zen sartzen gure curriculumean. Gizarteak beste gauza batzutarako prestatzen gintuen: emazte esaneko, ama eta zaintzaile izateko, eta balore horiek isladatzen dira gero. Emakume taldeetan elkartzen hasi ginen gero, aldarrikatzeko guk ere bageneukala aisialdirako eta kirolerako eskubidea.

♦ **Gauza jakina da umei ia jaio aurretik adierazten diegula zein den asignatu diegun genero-identitatea eta genero bakoitzari lotutako jarduera estereotipuetan trebatzen dira gero. Zuri, adibidez, Pilar. Zenbatek iradoki zizuten zure lekua beste nonbait zegoela?**

Pilar: Neba bat eta bi ahizpa dauzkate eta guk beti egin dugu kirola, baina akordatzen naiz aitak zer erantzun zidan etxean Karakateko lgoera jokatzea aztertzen ari nintzela esan nionean [Karakateko lgoeraren bigarren edizioan]: 'Hori gizona zentzuzkoa da. Hori tratua hartu behar duzuna!. Hori ez dago neskentzat pentsatuta'. Eta zer pentsatu nuen nik?: 'Ba orain, bai, orain, egin egingo dut! Eta amorruguziarekin gainera!'. Gure amak zera esan zidan: "Zertarako esaten diozu aitari? Egin behar baduzu, egin, baina eziozu esan!". Aiako mendi maratoia egingo nuela esan nionean gauza bera. "Donostiako maratoia eginda, nahikoa. Zertarako hasi behar zara orain mendian?"

Hor gizonak bakarrik ibiliko dira. Zu beti mutil artean!" bota zidan aitak. Gure aitak, baina, 80 urte egin behar ditu eta ez zitzaion buruan halakorik sartzen.

Amaia: Beisbolearen, eskubaloian, pilotan... bi neska eta hamabi mutil ginen gu auzoan, eta bi aukera geneuzkan: edo ahalegin edo bazterrean gelditu. Niri iruditzen zaidana da mutilak beti daudela motibatuago kirolerako eta neskak gehiago egiten dugula ondo pasatzeko.

♦ **Baliabide banaketari dagokionez, inork gutxi jarriko du zalantzan emakumeen kirola bigarren maila batean dagoela oro har. Kirol egokituaz zer esan dezakezu, Ane?**

Ane: Beste maila batean dagoela. Ni Dortoka Kirol Elkartearen nago. Kirol egokitu da gurea, denok dauzkagulako ezintasunak. Guretzat, gorpildun aulkian daudenentzat eta besteontzat, zailagoa da txapelketetara joatea-eta. Kirola denok egin dezakegu, baina guk beste behar batzuk ditugu. Euskadiko eta Espainiako txapelketetara joateko garrario egokitu daukagu zorionez, baina bestela garrarioan gabeziak daukagu.

♦ **Aipatu izan duzu, Ane, meritua egin arren kirolari batzuek ezin izan dutela txapelketetara joan baliabide faltagatik.**

Ane: Bai, hori egia da eta pena da. Gure kirola ezberdina da, beharrak beste batzuk dira eta animatuko nituzke denak gure klubak eta txapelketak ezagutzera.

♦ **Besteok igarri duzue desorekarik?**

Nerea: Nik ez, iruditzen zaidalako atletismoa dela berdintasuna zaindun dagoen kirola. Futbolearen eta beste kontu bat da, baina atletismoan mutilak eta neskak batera [egun berean eta leku berean] lehiatzen gara eta baliabideak berdina dira. Jokatzeko 200 metroko mutilen lasterketa eta gero nesken, eta horrela, txandaka, beste denak. Ez dira jokatzeko lehenengo mutilen lasterketak eta gero neskenak, esaterako. Jauzi hirukoitzeko munduko txapelketa jokatu berri da, eta ez dut uste nesken errekorri mutilen errekorri baino garrantzi txikiagoa eman zaionik.

♦ **Elgoibarren Korrikedada sortu zuten orain lau-bost urte. Izena eman zutenen**

tako askok aitortu zuten lotsa puntu bat sentitzen zutela bakarka korrika egitera irtetean; beste batzuek ezin zuten lagunik topatu eta beldurra sentitzen zuenik ere bazen. Sentitu duzue halakorik? Eta sentitu baduzue, nola gainditu duzue?

Nerea. Nik bidea eginda topatu dut. Gazteagoa ere banaiz eta ez dut halakorik sentitu.

Pilar: Nik neuk ez dut sentitu halakorik, baina bistan da sekula kirolik egin ez duenarentzat lagungarri dela taldean hastea.

♦ **“Emakumeak gara marimenditarrak. Berrogei urte beteak ditugu. Euskaldunak gara bihotzez eta mintzoz. Kirola maite dugu, bereziki mendia, mendi zaleak gara hartara, eta gure atseginerako eta gu bezalako askorentzako akuilu gisa jardun nahi dugu”. Zer eman dizu emakumez bakarrik osatutako taldean aritzeak, Arrate?**

Arrate: Marimendi geroxeago etorri zen, baina guk Txitxibilaldi sortu genuen kirola lagunartean egiteko eta jabetu ginelako guretzako denbora hartu behar genuela, beti umei eta besteei begira egon gabe. Emakumeak gozatzeko eskubidea dugula eta mugak hausteko daudela aldarrikatu nahi genuen. Eta hasi ginen urtean asteburu bat hartzen guretzat kirola egiteko eta hasi ginen erronkak zehazten. “Eta nola zoazte umeak utzita?”, galdetu izan ziguten askok. Gureak erronka kolektiboak izan dira beti. Toubkalen egon ginen, Kilimanjaron ere bai... Lehia pertsonalik ez dugu izan sekula guk, baina



PILAR ARRIOLA

“Pentsa zer litzatekeen Lilatoira joaten garen erdiak joango bagina Zestoara eta lehiatu han 120 gizonekin! Indarra egitea eta emakumeen kirola ikusgarri egitea gure esku ere badago”



ARRATE ZUBIA

“Gure lehia, lehia kolektiboa izan da beti: emakumeen presentzia indartu nahi izan dugu eta elkarrekin hasitako proiektuak elkarrekin gauzatzea”

bai, lehia kolektiboa. Taldea osatu, bidaia prestatu, joan, saiatu eta proiektua gauzatu. Hori izan da gure erronka. Kirola egiteko denok gai garela erakutsi nahi izan dugu, mugak geuk sortzen ditugula geure buruan.

♦ **Emakumez ari garela, behin eta berriaz irteten den gaia aipatu duzu: zaintza. Emakundek azkena egin zuen txostenean aipatzen zuen horixe zela emakumeek gizonen baino kirol gutxiago egiteko arrazoietako bat. Zer arrazoi ikusten dituzue zuek?**

Arrate: Emakumeoi erakutsi digute arduratsua izan behar garela eta arduratzen gara seme-alabez, gurasoz... geure buruz ez, beste guztiez. Eta nik uste dut hori dela, bai emakumeek girol gutxiago egiteko arrazoiak, bai eta gizonen baino aurrerik lagatzekoa ere. Mendian ikusten dira emakumeak, baina goi-mendietan apenas ikusten den 40 urtez gorakorik. Gazteagoak, bai, baina adin horretatik aurrera desagertu egiten dira. Horregatik dira garrantzitsuak halako erakusketak eta halako solasaldiak, ikusteko emakumeek badauzkagula gure helburu eta proiektu propioak ere.


Pilar: Nire kasua beste bat da. Nik nire alabak lau hilabete zituela Behobia egin nuen. Artean bularra ematen nion eta batek baino gehiagok esan zidaten ia nolatan nindoan. Zenbati gogorarazi behar izan ete nien aita ere bazuela eta lagako nuela esnea aterata, aitak biberioian eman ziezaion. Goiz bateko kontua zen, baina jendeak ez zuen ulertzen. Bigarrena abuztuan jaio zen eta ez nuen Behobia jokatzetik izan ez nuelako prestatzeko aukerarik izan, baina bestela egingo nuen.

♦ **Gazteagok zaretenok zer arrazoi**

ikusten duzue emakumeek gizonen beste kirol ez egiteko?

Amaia: Ni bat nator Arratek esandakoa rekin. Badugu instinto hori eta errazago lagatzen ditugu beste gauza batzuk zaintza ardurak betetzeko. Kirol zaleagoak ere badira, baina, mutilak eta hori argi ikusten da 30 ikasleko gela batean kirola zeini gustatzen zaion galdetzen baduzu. Gaur egun oso modan daude crossfit, spinning eta horiek denak emakumeen artean, baina zergaitik daude modan, benetan gustatzen zaigulako ala nahi dugulako egon guapa eta argalak? Benetan gustuko duenak ez dio hain erraz lagatzen kirola egiteari.

Nerea: Nik ez dakit lehenengo belaunaldietan zer zen, baina nik uste dut orain aldatzen ari dela Arratek ardurez zioena. Arduratsua izatearena ez dut ikusten generoari lotua, baizik eta etxean jaso dugun heziketari lotua. Beharbada belaunaldiz belaunaldi jaso dugunak oraindik pisua duelako egiten dute neskek kirol gutxiago, baina ari da parekatzen.



ANE ZABALETA

“Nik badakit ez dela gauza bera pertsona autonomoa izatea edo pertsona ezindua izatea, baina kirolak balio digu erakusteko mugak geure buruan dauzkagula”

♦ **Hitz egin dezagun dantzaz. Dantza ez dute kiroltzat hartzen. Hala ere, Gipuzkoan astero 10.000 bat lagun aritzen dira euskal dantzan. Horiei gehitu beharko litzazkieke balleta eta beste dantzak egiten dituztenak. Dantzan gizonak gutxiengo dira, baina, baita Haritz Euskal Dantzari Taldean ere. Zer gertatzen da, Amaia?**

Amaia: Bai, dantzara oso gizon gutxi



NEREA SASIAIN

"Nik lehia pertsonal puntu hori behar dut. Potolatxo nintzen lehen eta azkenean artean iristen nintzen lasterketan, baina lehiatzeko gogo horrek eraman ninduen gehiago saiatzera eta gaur naizena izatera"

datoz, baina jakingo bagenu horri nola eman buelta... Lehen, mutil gehiagok ematen zuten izena eta dantzaz gain beste zerbaite ere egiten zuten, baina lehenesten hasten direnean dantzak beti galtzen du. Adin jakin batera arte irauten dute, baina gero gutxitzen hasten dira, eta halako lotsa moduko bat sentitzen dute horiek, dantza nesken kontua delako.

♦ **Kanpainak egiten dira kirola sustatzeko, baina kanpaina horietan ez dute dantza sartzen. Beharbada sartuko balute...**

Amaia: Ez dakit. Nik neuk ez dakit kiroltzat hartuko nukeen dantza. Aktibitate fisikoa da, baina ni neu ez naiz lehiatzen dantzan eta ez dakit kiroltzat har daitekeen. Niretzat gehiago da aisia eskaintza bat. Egia da kiroltik egiten dudana galdeztzen didatenean, baietz erantzuten die dala, dantza egiten dudala, baina ez dakit.

♦ **Publikoarentzako galdera. Harrituko al zinatekete gaurko kirolari-lagunak aurkeztean Amaia pilotaria eta dantzaria dela esan ordez soilik dantzaria dela esan izan bagenu?**

[Publikoaren gehiengo batek baietz dio].

♦ **Zer egin dantzari balioa emateko?**

Nerea: Ez dakit. Beharbada ez da kiroltzat hartzen jendeak ez duelako lehiarekin lotzen. Egon badago lehia, baina esparru txikiagoetan beharbada.

♦ **Zein beharrezko dira emakume erreferenteak kirolean?**

Pilar: Beti da ona erreferenteak izatea. Euskadiko mendiko selekzioarako estreinakoz deitu nindutenean, hamar lagun ginen: bederatzi mutil eta ni. Beti ibili naiz ni mutil artean, ume-umetatik, eta egia

esan beti zaindu naute oso ondo. Zegama-Aizkorri maratoiko lehenengo edizioa jokatu genuenean, orain 16 bat urte, 8 neska ginen eta orain 2.500 neska ematen dute izena. Lilatoian ere eman zizuten elgoibartarroi sari bat, hogeitabat lagun joaten ginelako. Baina gauza bat esango dizut. Lilatoira joaten ginen 60 bat lagun, eta gero, handik astebetara Zestoan urtero jokatzeko den herri lasterketa batera neu bakarrik joaten nintzen. Eta bi distantzia izaten dira aukeran Zestoan: hiru kilometrokoa eta zortzikoa. Kosta egiten zitzaidan hori ulertzea eta beti esaten nien gauza bera havei: 'Bale, ondo dago Lilatoira joatea, baina zergatik ez zarete gero Zestoara etortzen? Pentsa zuek Lilatoira joaten garen erdiak joango bagina Zestoara eta lehiatu han 120 gizonekin!. Indarra egitea eta emakumeen kirola ikusgarri egitea badago gure esku ere! Askotan mugak geuk jartzen ditugula iruditzen zait. Niri beti gustatu izan zait mutilekin lehiatzea. Niri ez zitzaidan batera gustatu adibidez esan zutenean Behobian aparte irtengo zirela emakumeak eta gizonak. Nik ez dut nahi beste Lilatoit bat Behobia barruan.

Arrate: Ez, ez, bidea ez da bereiztea. Baina iruditzen zait oinarrian daukagula hutsa, eta oinarrian egin behar dugula lan. Eskoletatik hasi behar dugu berdintasuna lantzen eta horretarako garrantzitsua da dantza ere eskaintzea eskola kirolean.

Ane: Erreferenteak izatea oso garrantzitsua da. Nik ASPACEKOAK izan ditut beti erreferente. Nik atletismoa egiten dut batez ere, baina boxeoa ere hasi naiz orain Ixa Rodriguez boxeolariarekin. Boxeoa 'persona normalekin' aritzen naiz eta esperientzia berria da niretzat. Neuri ere arraro egiten zait pixkat haiekin entrenatzea, baina aldi berean, entrenatzailea emakumea izanda, sentitzen dut beste konplizitate moduko bat.

♦ **Sexua aldatzea bera errazagoa da gaur gure sistema honen ajeak aldatzea baino. Nola egin genezake emakumeen kirola ikusgarriago egiteko?**

Arrate: Kultura aldatu behar da hemen, estereotipoak apurtu, eta horretarako egin

behar dugu lan umetatik. Eta kultura aldatzea ez da emakumeon lana bakarrik, jakina. Hori denon egitekoa da.

Pilar: Akordatzeko naiz behin Nafarroako herri batetik deitu zutela Elgoibarko udaltxerara nire telefono eske. Mendiko lasterketa bat antolatzen zuten herri hartan eta emakume gehiago nahi zituzten irteeran seigarren edizio hartarako. Baietza eman nien. Joan nintzen eta neu izan nintzen emakume bakarra. Guztira 80 bat lagunek hartu genuen parte eta sailkapen nagusian hogeigarrena-edo izan nintzen. Banatu zituzten sariak, baina niretzat ez zuten ezer. Eta esan nien: "Baina nola nahi duzue zuek emakumeak erakarri? Zertarako nahi gaituzue emakumeak hemen, jendeak zeozker diferentia ikus dezan, ala?".



AMAIA LOIOLA

"Beisbolearen, eskubaloian, pilotan... bi neska eta 12 mutil ginen gu auzoan, eta bi aukera geneuzkan: edo ahalegindu kirolean edo bazterrean gelditu"

♦ **Zuzentasun politikoaren garaian bizi gara eta halakoak gehiago zainduko dira gaur, ziurrenik baina 'mikrofonoak ixtean zenbatetan entzun dituzue entzun nahiko ez zenituztenak? Esaterako, 'emakumeen futbola ez da futbola, ezta femeninoa ere'.**

Pilar: Askotan.

Arrate: Mendi Zuriko gailurrean hala esan ziguten guri: 'Honek arraindegiko ilara ematen du'. Hogeitabat emakume geunden.

Nerea: Nik atletismoan ez dut horrelakorik bizi, eta ez dakit zer esan. Baina 18 urte ditut eta ez dut horrenbeste bizi ere. Dena den, iruditzen zait atletismoan ez dagoela beste kirol batzuetako desorekarik.

▶ JOSE ANTONIO DE LA RICA

OSAKIDETZAKO OSASUN MENTALEKO KOORDINATZAILEA

Psikiatra eta Osakidetzako Osasun Mentaleko koordinatzailea da Jose Antonio de la Rica, eta otsailaren 25ean 'Alkoholismoa familian izenburuko solasaldian parte hartu zuen Mendaron, Al-Anon Gipuzkoako Alkoholikoen Senideen Elkarteko lagunekin batera. Alkoholaren kontsumoak sortzen dituen kalteez ohartarazi zuen eta alkoholiko batekin bizitzearen zailaz mintzatu zen.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zer da alkoholiko baten ondoan bizitzea?

Kontrol gabeko alkohol kontsumotik sortzen den gaixotasun kronikoa da alkoholismoa, eta beraz, alkoholiko batekin bizi dena gaixo batekin bizi da, eta gaixo batekin bizi denak, eta are, gaixoarentzat ez ezik ingurukoentzat ere kaltegarri diren jokabide jakin batzuk eragiten dituen gaixotasuna duenarekin bizi denak, galdera asko egin ohi dizkio bere buruari. Biktima edo gaixoak diren galdetzen diete askok euren buruei eta errudun sentimenduagatik borrarero ote diren ere bai beste zenbaitzuk. Egoera horretan askotariko estrategiak erabiltzen dituzte etxekoek. Izan daiteke gaixoarengandik urruntzea edo ahalik eta harreman txikiena izatea berarekin, izan daiteke itzulinguruka hastea arazoa begi-bistakoa denean, bai eta kontra egitea ere, eta izan daiteke baita ere mimoen estrategia erabiltzea. Hau da, alkohola uztearen truke nahi duena emango diogula agintzea gaixoari. Eta azken muturrean dago ziurrenik estrategia eraitzizaileena dena: Al-Anon edo antzeko elkarte batera gerturatzea bidean galdutako duintasuna berreskuratzeko. Alkoholikoaren etxekoek bizi dituzten sentimenduak askotarikoak dira: etsipena, lotsa, beldurra, frustrazioa, eta azkenik, egoerak hobera egiten badu, poza eta lasaitasuna. Alkoholarekiko mendekotasuna duenaren etxean denek sufritzen dute.

◆ Nola jakin dezakegu benetan arazoa dugula?

Normalean ageri-agerikoa izaten da alkoholismoa, behintzat gizona zegoetan. Emakumeen alkoholismoa ezkuagokoa izan ohi da, faktore askogatik. Beste edozein adikzio duenaren ezaugarri guztiak betetzen ditu alkoholikoak: batetik, mendekotasun psikikoa izaten du. Alkoholikoek ezin dute egun bat pasatu alkoholik probatu gabe. Bakarrik daudela ere edaten dute, nahiz batzuetan saiatzen diren jokaera hori ingurukoei ezkututzen. Alkohola edateko desira handia izaten dute eta edaten ez dutenean zitaldu egiten dira. Bestetik, mendekotasun fisikikoa ere izan ohi dute. Goizetan, oso ohikoa da esnatzeaz batera dardarak eta botagurea izatea eta abstinentsia sindrome hori edanez konpontzen saiatzea, uste dutelako alkoholak bakarrik arindu dezakeela euren



“Alkoholismoa da heriotza, gaixotze eta lanerako ezintasun gehien sortzen dituen gaitza”

ondoeza. Eta tolerantzia ere garatzen dute, hau da, hasierako efektu berdinak lortzeko geroz eta gehiago edaten dute. Alkoholismo maila ezberdinak daude: batetik daude alkoholaren kontsumoaz abusatzen dutenak, eta bestetik, alkoholarekiko menpekotasuna dutenak, ezin dutenak alkoholik gabe bizi. Bigarren horien kasuan, alkohol kontsumo txiki batek intoxikazioa sor dezake, eta era berean, adizkioak arduragabetu ere egiten ditu gaixoak eta euren egunerokoa aldatu.

◆ Nola lagundu alkoholaren mende bizi direla onartzen ez dutenei?

Alkoholikoen ezaugarria da hori ere, uste izatea kontrolatzen

“Bere mugen eta ezinen kontra egiten jarri behar dugu alkoholikoa, eta ikusarazi behar diogu ez dela gai nahi duena egiteko”

dutela, baina egiaz, zaila zaie lagatzea, alkoholik ez edateak ondoeza eta ezinegona sortzen dielako. Nola ikusiarazi arazoa dutela? Ba benetan euren burua kontrolatzeko gai direla uste badute, kontrolatzen hasteko esanda. Bere mugen eta ezinen kontra egiten jarri behar dugu alkoholikoa, eta ikusarazi behar diogu

ez dela gai nahi duena egiteko. Den horren kontzientzia hartu behar du, baina gerta daiteke kontziente izanda ere, laga nahi ez izatea edateari. Arazoa duela onartzen ez duen alkoholikoarekin bizi denari esango nioke gaurkoa moduko hitzaldietara eta Al-Anonen eta antzeko taldeen bileretara joatea oso lagungarria izaten dela, maite dugun pertsona horri lagundu ahal izateko lehenengo geure burua zaindu behar dugulako.

◆ **Ba al dago alkoholikoaren perfil jakinik?**

Ez dago perfil jakin bat. Badauzkagu asteburuetako alkoholikoak, intoxikazio etiliko larriak izaten dituztenak asteburuetan eta jai-egunetan, baina astean zehar edaten ez dutenak, baina perfil zabalduena edale sozialarena da: txikito bi edatera irten eta bete-bete eginda etxeratzen denarena, eta gainera, otorduetan ere ardoa edaten duenarena.

◆ **Alkoholaren kontsumoa oso errotua duen kultura da gurea, baina lehen ere esan duzu: generoari dagokionez, oraindik ere estigma handiagoa du mozkortzen den emakumeak gizonek baino. Zer eragin dauka horrek?**

Alkoholiko Anonimoen taldeetako gehienak gizonak izaten dira. Nor bere kasa saiatuz gero, oso zaila da adikzioa uztea. Taldea babesa da, eta jausiz gero, berriro altxatzen laguntzen du, baina zuk esan duzu: oraindik ere estigmatizazio handiagoa du mozkortzen den emakumeak gizonak baino, eta horrek zaildu egiten die emakumeei inoren aurrean arazoa onartzea eta laguntza eskatzea. Adin jakin bateko emakumeetan lotsa eta kulpa sentimendua handiagoa da gizonetan baino, gizarteak ere ezberdin epaitzen dituelako, eta horregatik ezkutuan edatera jotzen dute gehienek. ‘Gizon ona da, baina edan egiten du’. Zenbatetan entzun ote dugun hori! Alkoholikoa emakumea denean, baina, nekez entzuten da halakorik. Emakumea demonizatu egiten da. Aldatzen ari da, baina oraindik oso errotua dago hori. Gazteetan, neskek eta mutilek berdin edaten dute. Botiltzarrean mutil zein neska dabilta eta estereotipo hori ari da galtzen.

◆ **Etxean denek sufritzen dute. Zelan eragiten die umei?**

Eragina handia da eta kaltea izugarria. Era berean, ume horiek etxean bizi izan dutena errepikatzeke duten arriskua ere handiagoa da. Erreferentzia faltak eta etxean bizi izan duten egoera traumatikoek bultza ditzakete ume horiek jokabide desegokietara, batez ere nerabezaroan: bultza ditzake edatera edo beste tipo bateko drogak kontsumitzera, izan ditzakete jokabide-nahasmenduak, porrot egin dezakete eskolan eta izan dezakete deliturako

joera handiagoa ere. Ez dut esan nahi ezinbestean hala denik, baina bada faktore bat.

◆ **Alkohol mendekotasuna da prebalentzia-indize handiena duena?**

Tabakoarena handiagoa izango da ziurrenik, baina bai, gainerako substantzien aurretik dago eta alde handiarekin gainera. Alkoholismoa

da heriotza, gaixotze eta lanerako ezintasun gehien sortzen dituen gaitza eta hori aipatu gabe alkoholaren gehiegizko kontsumoari lotutako buruko gaixotasun guztiak, asko direlako eta larriak.

◆ **Gibelari eragiten diola badakigu, baina zer kalte egin diezairoke buruari, nerbio-sistemari?**

Edaten dugun gutzia desintoxikatzen duen organoa da gibela eta horregatik hitz egiten da asko gibelari buruz, baina alkoholak gure nerbio-sistemari eragiten dio kalte handiena. Gaixotasun asko daude gehiegizko alkohol kontsumoari lotuta: entzefalopatia alkoholikoa, neuropatia alkoholikoa, mielopatiak, buruko atrofiak... Aparatu askori eragiten die kalte, baina bereziki kaltetzen dituenak honakoak dira: digestio aparatua, bihotza eta zirkulazio-aparatua eta nerbio-sistema.

◆ **Alkoholismoak tabua izaten jarraitzen al du?**

Alkohola gure kulturaren parte da. Ospakizun guztietan dago eta horren kontzientzia hartu behar dugu, dugun arazoaz jabetzeko. Ardoa bera elikagaitzat ikusten da sarri eta ez benetan den hori bezala, drogatzat, eta jakina, ikuskera horretatik ez dago honek duen dimentsioa ikusterik. Eta bai, bale, gauza bat da ardoa edatea eta beste bat Errusian bezala vodka edatea edo gure gazteek asteburuetan edaten dituzten edari destilatuak eta graduazio handikoak edatea. Horiek askoz letalagoak dira, intoxikazioa azkarragoa delako eta kalte handiagoa egiten diotelako gure organismoari, baina ardoa eta garagardoa ere alcoholdun edariak dira, eta alkoholak adikzioa sor dezake. Eta bai, egia da normaltasunez edo ohituraz alkohola kontsumitzera behartzen gaituen gizarte honek baduela gero alkoholaren eraginak estaltzeko joera-halako bat. Hau da, festa-giroan edaten hasi denaren jokabide okerrak tapatzeko joera bat, baina iruditzen zait, zorionez, ari dela hori ere aldatzen, eta alkoholismoak eta beste adikzioek laga dioletela tabu izateari. Urte askoan emakumeen azpiratzean oinarritu da gizonen alkoholismoa, baina zorionez emakumeek eurek hasitako borrokari esker konturatu gara honek ezin duela horrela jarraitu. Alkoholismoari buruz garbi hitz egin behar da. Alkoholismoa gaixotasuna da, bai, baina beste gaixotasunekin alderatuta, hemen, alkoholikoek erantzukizun pertsonala eta besterenezina dute. Diabetiko bati ere behar dituen botikak eta intsulina emango dizkiogu, baina jarraitzen badu gozo-gauzak jaten gutxi egin ahal izango dugu besteok bere alde. Eta hori alkoholismoan bereziki da hala.

Motxaila Eguneko ekintza guztiak bertan behera laga utzi dituzte koronabirusagatik



Koronabirusaren eraginez, eta badaezpadako neurri gisa, Motxaila Eguneko ekitaldi guztiak bertan behera gelditu dira momentuz. Atzo eguerdian etorri zen Mendaroko Udalaren erabakia. Gaurko iragarrita zegoen bertso saioa eta bihar Gaztetxean egitekoak ziren bazkaria eta kontzertuak bertan behera lagatzen zituela esan zuen, birusa gehiago ez zabaltzeko hartutako neurriei kasu eginez. Artean, ez zegoen argi Motxaila Taldeak gainerako ekintzei eutsiko zien, baina orduerdi eskasera etorri zen jakinarazpena. Motxaila Taldeak jakinarazi zuten ez zutela zentzurik ikusten gainerakoei eustea. Horregatik, egitarau osoa beste egun batera atzeratzeko aukera aztertuko dute Udalak eta Motxaila Taldeak.

Atabal elkarteak zozkatutako gaztak badu jabea

Otsaileko azken zapatuko ferian Atabal Danborradaren Elkarteak jarri zuen txosna, eta Mautxoko gazta bat zozkatu zuten. Mari Karmen Juaristi izan da irabazlea.



'Susanaren iraultza' klown ikuskizuna, bertan behera utzi dute

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan *Susanaren iraultza* klown ikuskizuna antolatua zuten domekarako Mendaron, baina Udalak bertan behera utzi zuen atzo eguerdian, Koronabirusa gehiago ez zabaltzeko neurri gisa.

Jose Ramon Soroiz aktorea Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleekin batu da

Haurren artean euskarazko irakurketa eta idazketa sustatzea helburu duen *Tramankuluak* antzezlanaren eman zuten joan zen astean Jose Ramon Soroiz aktoreak Herriko Antzokian, Herri Eskolako eta Ikastolako eskola umeen aurrean. Umeei gauza txikien misterioak erakusten dizkien eta istorio miresgarriak asmatzeko grina pizten dien antzerki-obra xumea da *Tramankuluak*. Aktore ezagunak hainbat tresna erakutsi zizkien ikasleei oholza gainean, horien barruan ezkutuan dauden istorioak bistaratuz, haurrak liburutara, irakurketara eta idazketara hurbiltzeko asmoz.



Zinegoak jaialdiko 'Tu me manques' filma, martxoaren 26an

Bilboko Zinegoak Gayloesbitrans Zinemaren eta Arte Eszenikoen jaialdiko azken edizioako hainbat film ikusteko aukera izan genuen atzo, eta martxoaren 26an *Tu me manques* luzemetraia ekarriko dute. Rodrigo Bellot boliviarrak zuzendutako filma da. Jorgek halabeharrez ezagutu du Sebastian, bere semearen mutil-lagun ohia, Skype bidezko solasaldi batean, eta kontatu dio bere semeak bere buruaz beste egin nahi duela. Hiru istorio gurutatuko dira, eta elkargune batean egingo dute topo. 21:30ean izango da filma, Herriko Antzokian.



'Antonio Gaztañetaren bidaia' taularatuko du Musbika Ensemblek Herriko Antzokian



Musbika Ensemble taldeak *Antonio Gaztañetaren bidaia* ikusentzuzkoa taularatuko du domekan, Herriko Antzokian. Antonio Gaztañetaren itsasontzian bidaiatzeko aukera eskainiko du taldeak, testu dramatizatu eta musikaren bitartez. Euskal Herrian hainbat itsas-gizon garrantzitsu izan dira, tartean Antonio Gaztañeta mutrikuarra (1656-1728). Tripazko sokak, klabea, arku barrokoak, larruzko estalkiak eta Barroko garaiko kriterio historikoekin interpretatutako musikak Antonio Gaztañetaren garaiko Mutriku herrira eramango gaitu bidaiari ekiteko. Gaztañetak Europako eta Ameriketako hainbat herrialdetara ere bidaiatu zuen, eta hango musika eta kultura ezagutzeko aukera ere izango dugu. Musika klasikoa eta antzinako musika pertsona ororengana iristeko helburuarekin sortu zuten Musbika Ensemble 2016an, eta Elur Arrieta elgoibartarra da taldeko perkusio-jolea. 12:30ean izango da emanaldia.

'Zeren zereko zera' antzezlanaren aurkeztuko du Taupadak eguaztenean Aita Agirreko kultur kafean

Taupada antzerki taldeak *Zeren zereko zera* antzezlanaren aurkeztuko du Aita Agirre kultur kafean martxoaren 18an. Pertsonek arteko harremanetan oinarritutako obra da: batetik, maitasuna, miresmena eta anonimotasun beharra ditu oinarri, eta bestetik, zurrumurruek indarrak izan dezakeen eragin ezkorra islatzen du lanak. Jon Olivares Gallastegi, Maria Jesus Otaegi Urkizu, Sara Iriondo Otaño, Dani Zelaia Cooper, Nerea Cid Altzibar, Oihane Gartzia Arrillaga eta Ibai Leon Zafra izango dira aktoreak. Jose Mari Larrañaga Arrizabalaga izango da teknikaria eta Edurne Lasa Amorebietak zuzenduko du guztia. 21:00etan hasiko da emanaldia.



Aita Agirre kulturaren eta bereziki, antzerkiaren erreferente izan behar dela uste du Taupadak, eta horretarako proposamen bat egin dio Kultura Sailari: Taupadak hilean behin eskainiko du antzezlanen bat Aita Agirren, martxotik ekainera bitartean.

Udaldirako hezitzaileak behar ditu Elgoibarko Izarrak

Udako aisia eskaintzan lan egiteko hezitzaileak behar ditu Elgoibarko Izarrak. Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea eta ahozko euskara maila altua izatea eskatzen dute. Era berean, baloratuko da aisialdian lan-eskarmentua izatea, Elgoibarko izatea, Heziketa berezietako ikasketak nahiz esperientzia izatea, espezializazio ikastaroak egin izana, jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea, taldean lan egiteko gaitasuna izatea eta herrigintzan jardun izana. Martxoaren 18ra arte dago curriculum bidaltzeko epea, www.elgoibarkoizarra.eus webgunearen bitartez.

'Herensugearen itzulera V Sataripeko guda' liburua aurkeztuko dute gaur

Errasti-De la Maza familiak Herensugearen itzulera izeneko liburua argitaratu zuen 2018an, eta iazko abenduan kaleratu zuen bigarren zatia, Durangoko azokarako: *Herensugearen itzulera V Sataripeko guda*. Liburu hori aurkeztuko dute gaur iluntzean, familian. 19:00etan izango da aurkezpena, Kultur Etxean.

Laburbirako filmak hilaren 25ean Kultur Etxean

Euskarazko bederatzi film labur sartu dituzte aurten Laburbira film zirkuitoan, eta Euskal Herriko hainbat herritan ikusteko aukera egongo da. Guztira 33 herritan zehar ibiliko da Laburbira, Euskal Herriko 29 herritan eta Euskal Herrikan kanpoko lau herritan: Londres, Paris, Valladolid eta Valentzian. Elgoibarrera martxoaren 25ean iritsiko da. 19:00etan izango da emanaldia, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Bertan behera geratu dira bihar jokatzekoak ziren eskuz binakako Emakume Master Cup txapelketako finalerdiak

Elgoibar Ikastolako pilotalekuak bihar hartu behar zituen Laboral Kutxa Emakume Master Cup binakako txapelketaren finalerdiak, bertan behera geratu dira Koronabirusa dela-eta. Euskal Herriko emakume pilotari onenak lehiatu behar ziren txapelketa honetan. Honakoan ziren finalerdiatarako sailkatuak: Eneritz Arrieta eta Amaia Jaka Nagore eta Leire Galeano ahizpa pilotarien aurka, finalerdi batean. Eta beste finalerdian Irantzu Etxebestek eta Leire Etxanizek osatutako bikoteak Iera Agirreren eta Maite Ruiz de Larramendiren aurka jokatu behar zuten.



Pilota Eguna, bihar

Elgoibar Ikastolak antolatzen duen Pilota Egunaren 23. ekitaldia egingo dute zapatuan, martxoaren 14an, Kalegoen plazako frontoian (euria egingo balu, Ikastolako frontoian). Ikastolako 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek parte hartuko dute gaztetxoaren artean pilota eta kirola sustatzea helburu duen txapelketan. 10:30ean hasita, guztira hamahiru partida jokatu dituzte, 12 tantora.

Zabalik dago Aste Santuko kirol campusean izena emateko epea

Aste Santuko kirol campusa jarri du martxan, hamabigarren urtez, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Kirol Campusa apirilaren 6an hasiko da eta apirilaren 17an bukatuko da. Zazpi egun izango dira guztira: apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17. Egun horietan 9:30etik 12:30era izango dira saioak. Umeek Mintxetako instalazioak (atletismo, tenis eta padel pista eta futbol zelaia) eta Olaizaga eta IMH kiroldegietako kantxak erabiliko dituzte. 2008 eta 2013 urte bitartean, biak barne, jaiotako hurrek parte hartu ahal izango dute campusean. Hau da, 7 eta 12 urte tarteko hurrek. Interesatuak martxoaren 30a baino lehen eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian. Prezioari dagokionez, Patronatuak bazkideek 44,50 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, aldiz, 49,50 euro.

Eneko Agirretxe bolari errezildarra gailendu da Aiastako tiraldian

Aiastiako bolatokiaren jokatu zuten zapatuan Gipuzkoako 51. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketako estreinako jaurtialdia, eta Azkoitiko Floreaga taldeko bolariak nabarmendu ziren. Floreagako taldekide Eneko Agirretxe errezildarrak irabazi zuen tiraldia, sei txirlorekin, eta Gorka Etxaniz taldekideak eskuratu zuen bigarren postua, bost txirlo botata. Lastur taldeko kidea den Mateo Guenaga markinarrak lortu zuen hirugarren postua, bost txirlo botata. Guztira 70 bolarik hartu zuten parte Aiastiako tiraldian. Zapatu honetan jokatu dute bigarren jardunaldiko tiraldia Azpeitiko Garmendipe bolatokian.



Herri kirolak sustatzeko saio berezia egin dute Mendaron



Arno Guraso Elkarteak antolatuta, herri kirolak sustatzeko saioa egin zuten joan den martxoaren 7an. Herriko Enparantzan egitekoa zuten, baina eguraldi txarragatik ikastolako patioa aldatu zuten jaia. Trontzan, txinga eroaten, lokotx batzen eta sokatiran aritu ziren, besteak beste, ume eta gurasoak. 90 bat umeek parte hartu zuten. Florentino Larrañaga eta Jon Larrañaga aita-xeme kirol-zaleen laguntza izan zuten Arno elkartekoek Herri Kirol Eguna antolatzeko. Lehen Hezkuntzako haurrak taldetan banatuta lehiatu ziren, kirol modalitate ezberdinetan. Haur Hezkuntzakoentzat, berriz, gune berezia antolatua zuten. Herri kirolean jardun ziren txikiak ere, baina marrazketarako gunea eta aurpegiak makilatzeko gunea ere izan zituzten. Bideoa eta argazki gehiago ikusteko: barren.eus.


Aimar Cambronero gailendu da eskolarteko xake txapelketan



Eibarko Zonaldeari dagozkion Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketako partidak jokatu zituzten martxoaren 1ean eta 8an, Eibarko Klub Deportibok eta Gipuzkoako Xake Federazioak antolatuta. Guztira hamasei jokalarit aritu ziren lehian, hiru kategoriatan banatuta, bi jardunaldietan. Mendaroko Xake Eskolako Aimar Cambronero eta Danel Garcia izan ziren parte hartzaileetariko bi, eta emaitza onak eskuratu zituzten batak zein besteak. Cambronero irabazi zuen infantil mailako lehia, eta Garcia hirugarren postua eskuratu zuen benjamin mailakoen artean.

BTT irteera antolatu du Morkaikok ekainerako

Izki natur parkeko toki esanguratsuenak ezagutzeko mendi-bizikleta irteera antolatu du Morkaikok ekainaren 5etik 7ra bitarteko astebururako. Ibernalo landetxean hartuko dute ostatua pentsio erdian. Ohartarazi dutenez, hamahiru lagunentzako lekua gorde dute. Izena emateko www.morkaiko.eus webgunean zintzilikatu duten galdetegia bete behar da. Prestatu dituzten ibilbideak eta gainerako informazioa ere web orri horretan kontsulta daiteke.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut.
☎ 640 742 618

Garbiketa lanak egingo nituzke, etxeetan edo elkarreetan. Orduka. Esperientzia daukat.
☎ 637 102 725 / 943 741 410

Pertsona nagusiak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 631 895 039

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan.
☎ 637 137 104

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez ere bai, ospitalean zein etxean. ☎ 631 782 442

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta etxeko zaintzako titulua.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Lan bila nabil: adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat.
☎ 631 895 039

Eskola partikularrak ematen ditut: LH, DBH eta Batxilergoko matematikak, kontabilitatea, ekonomia finantzak... ☎ 666 042 710

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest. Orduka. Berehala hasteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan eta asteburuetan.
☎ 631 081 501

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan.
☎ 638 857 100

26 urteko neska naiz, euskalduna eta arduratsua. Umeak zainduko nituzke arratsaldez.
☎ 636 193 759

Eskaerak

Hortz klinika baterako auxiliarra behar da, amatasun baimen bat betetzeko. Interesatuak utzi mezu bat erantzungailuan. ☎ 943 742 919

BESTELAKOAK.....

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro.
☎ 688 634 044



Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

943 744 457

UMEEN HILABETEA

- ❖ Lastairak %30
- ❖ Panpinak %40
- ❖ Mantak eta izarak %40
- ❖ Burkoak eta ohe babesgarriak %15



Lastaira, 15° dituen tako anatomikoa eta zilindro ez-labaingarriak



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Española Administradores Locales Autónomos

Gure komunitateko lehendakariak kargua utziko du laster. Lehendakariak konponketa asko egin ditu, gainerako etxebizitei jakinarazi ez zaizkienak. Jakin nahi nuke komunitate bateko lehendakariak zer eginkizun dituen eta zer arau motak eragiten dion bere karguan aritzean.

Lehendakari-kargua betetzen duen pertsonari eragiten diote PHLK ezarritzen dituen arauak, Jabekideen Batzarrean baliozkotasunez hartutako akordioak, eta horien mende jarri behar du bere jarduna, eta betearazi egin behar ditu, eta, azkenik, Kode Zibilak analogiaz agintariari ezartzen dizkion arauak ere eragiten diote. Komunitateko lehendakaria Jabeen Batzordearen erabakiak betearazteaz arduratzen da, hau da, ordezkatzen duen komunitatearena, bai barrukoari bai kanpokoari dagokionez. Beraz, Jabekideen Batzarra bere kudeaketan eta eginkizunetan sar daiteke. Edozein kasutan, komunitate bateko lehendakaria agintarien jarraibideetara egokitu behar da, eta batzarak berak ere mugatzen du lehendakariari emandako ahalmena. Hau da, Jabekideen Batzarra bera da lehendakariak egin ditzakeen jarduketan, erabakien eta eginkizunen norainokoa zehaztuko duena. Izan ere, haren jarduna ordezkaritza hutsa da, komunitateko akordioak betetzeko. Halako jarraibiderik ezean, lehendakariak behar bezalako arduraz eta zentzuz jokatu behar du.

GOMENDIOA. Lehendakariak Jabekideen Batzarraren berariarazko baimenik gabe emandako egintza edo kontratuen kasuan, komunitateak ez du horien betebeharririk izango, salbu eta Batzarrak presidentek egindako kontratuak berresten dituenean.




ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Eixeko denon partez, zorionak, **Aneke**. Oso ondo pasa!



Zorionak, **Maite**, astear-tean 3 urte bete zenituelako. Muxu asko etxeko guztion partez.



Zorionak, **Aner!** 4 urte potolo! Ondo-ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean! Asko maite zaitugu. Familia-koak.



Zorionak, **Asier!** Bihar 7 urte! Ondo-ondo pasatu eta muxu pila bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Ilargi**, gaur 10 urte bete dituzulako. Zoragarria zara! Segi horrela.



Zorionak, **Iñigo eta Telmo**, astelehenean 8 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana etxekoen, eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

San Jose Eguneko jai-zubia dela-eta, datorren astean ez dugu **BARRENik** kaleratuko. Hurrengo zenbakia martxoaren 27an jasoko duzue. Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENeko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

SAMSUNG UE75RU7025K TELEBISTA



1.259 €

● 75" ● Dolby digital plus.

● Google Assistant eta Alexarekin bateragarria.

● DVB T2C sintonizadorea. 2019 gama. ● 4K UHD ● Smart TV.

● Bluetooth 4.2 ● 3HDMI ● 2USB ● HDR 10+

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zenikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila altua izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Berezietako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera merituen arabera baloratuko zaizkie.
- Datak: apirilaren 24an; arratsaldean, eta 25ean; goizean.
- Hautatuek oinarritzko prestakuntza-asteburu batean hartu beharko dute parte maiatzaren 23an eta 24an.



ELGOIBARKO IZARRA
Basketbolaren Taldeak

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Martxoak 18, asteazkena

Non eta nola:

- ✦ www.elgoibarkoizarra.eus
- ✦ 943 741 626
- ✦ kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

13 BARIKUA

19:00 'Herensugearen itzulera V Sataripeko guda' liburuaren aurkezpena, Kultur Etxean.

20:30 Antzerkia: 'Zaldi urdina'. Herriko Antzokian.

14 ZAPATUA

10:30 Pilota Eguna. Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian.

15 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Musbika Ensemble. Herriko Antzokian.

18 EGUAZTENA

21:00 'Dramatitragoak'. Taupada antzerki taldearen emanaldia, Aita Agirre kultur kafean.

23 ASTELEHENA

19:00 Kontzertua: Talde instrumentala. Musika Eskolako auditoriumean.

24 MARTITZENA

19:00 Kontzertua: Talde instrumentala. Musika Eskolako auditoriumean.

25 EGUAZTENA

19:00 Laburbira 2020: Euskarazko film laburren emanaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan. Ongarrik eta Euskara Sailak antolatuta.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida



RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar



Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850



Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 007 903 628
www.fisio-mas.com
IDN 17712



RPS 183/12
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192



Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404



RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053



RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



RPS 271/12
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

AGENDA MOREA

13 BARIKUA

21:30 Zine foruma: 'Un mundo libre'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 ASTELEHENA

18:00 Zine foruma: 'Bar Bahar, entre dos mundos'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako hausnarketa saioa: 'Zaintzatik norbere zaintzara'. Lorei Saiegik eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

13 BARIKUA	14 ZAPATUA	15 DOMEKA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea
16 ASTELEHENA	17 MARTITZENA	18 EGUAZTENA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola
19 EGUENA	20 BARIKUA	21 ZAPATUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia
Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean ---
22 DOMEKA	23 ASTELEHENA	24 MARTITZENA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola
25 EGUAZTENA	26 EGUENA	27 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)



'El escándalo (Bombshell)'

14 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

15 domeka: 19:00

16 astelehena: 21:30

'Especiales'

20 barikua: 21:30

21 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

22 domeka: 19:00

23 astelehena: 21:30

'Tu me manques' (Zinegoak jaialdiko filma)

26 eguena: 21:30



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademielgoibar@gmail.com



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbaitzuz daukagu.
Dena ordua hartzeko.

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Gauza bat esan nahi nizuke sekretuan. Ez esan inori. Sekretuan eduki. Zuk bakarrik dakizu, ez diot beste inori esan.

Gehienek ez dakitena da sekretua, eta dakienak jakinarazi behar ez duena.

Gorde behar dena. Isilean, ezkutuan dagoena.

Zergatik esaten ote dugu orduan ez badugu inork jakiterik nahi? Esaten badugu, egia bihurtuko da, beharbada. Inork ez badaki, ez da; ez da gertatu. Hori da. Kontatzen ez badugu, izango da ez dela existitzen pentsatzen dugulako, geuk asmatutakoa dela; izan daiteke. Esaten hasita, baina, ez diogu edonori esaten. Ez dugu edozein egiten gure sekretuaren konplize, inori esango ez diola dakigun hura bakarrik, beretzat gordeko duena baino ez. Sekretu izateari utziko dio orduan, edo ez?

Eta sekretua guri kontatzen badigute, edo gurekin leku sekretu batera joan nahi duela esaten badigu norbaitek? Zirrara eragiten digu, zerbait berezia sentitzen dugu. Ez da erraza azaltzen. Batzuetan, sekretupetik atera behar ez dugun hori ez jakitea nahiago izango genukeen arren, ezberdin sentiarazten gaitu sekretua kontatu digunak; berezi, aukeratu, bakar. Sekretupeko informazioaren jabe egiten gaitu lagunak, ezkutuko gertakizunaren jagole, esan ezin dugun haren lekuko. Gugandik gertuago sentitzen dugu bestea, berezi, geuri esan baitigu eta ez besteri.

Orain badakit, Veronica Rothek irakatsi zidan, "... pertsonak ez direla sekretu biltegiak besterik. Ezagutzen dituzula uste duzun arren, ulertzen dituzula, beti izango dituztela beren arrazoiak bihotzean lurperatuta, inork ikusi ezinezko lekuan. Inoiz ez duzula pertsona bat guztiz ezagutuko; hala ere, noizean behin, norbaitekin fidatzea erabaki dezakezula".

"... pertsonak ez direla sekretu biltegiak besterik"



Maria Arrate Aguirregomezcorta Alberdi

"Maritxu Marconi"

2020ko martxoaren 6an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Marceliano Diez Tejedor

2020ko otsailaren 8an hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure falta somatzen dugu, baina gure bihotzetan zaude.



Santi Urain Arrona

2020ko martxoaren 10ean hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Juanjo Cruz Godoy

2019ko martxoaren 3an hil zen, 56 urte zituela.

Bizirik irauten dugun bitartean zure oroitzapena gurekin biziko da.

Zure osaba-izebak eta lehengusinak. Liberal - Godoy familia.



V. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

2015eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

Zu gabe, bost urte.

Zure bizipoza barik, bost urte.

Zure hutsunea gure oroitzapenetan, bost urte.

Gure parte izan zinen ta izango zera.

Maite zaitugu.

Zure senideak



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

Biena, S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20650 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia · Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
itende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltseritza
► Pintura

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak
► Iturgintza
► Elektrizitatea

► Aroztegiak
► Erreformak